

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Hautatzea bake epaile titularra eta ordezkoa

Amaitu denez udalerrri honetako bake epaile titularren eta ordezkoaren lau urteko izendapen aldia, eta behin Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak jakinarazpena eginda, udalbatzari dagokio hautatzea udalerriko bake epaile titularra eta ordezkoa izango diren pertsonak, bat etorri Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. eta 102. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak 4. eta 5.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

Hamabost egun balioduneko epea irekitzen da, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, legezko baldintzak betetzen dituzten interesdunek agiri hauek udal bulegoetan aurkez ditzaten:

- a) Eskaera.
 - b) NANaren fotokopia.
 - c) Erantzukizunpeko aitoren bat alderdi hauek jasoko dituenak:
 - Ez dela delituagatik kondenatua izan edo, hala badagokio, birgaitzea lortu duela.
 - Delituagatik auzipetuta edo inkulpatuta ez egotea, edo, hala badagokio, absolutua edo largesteko autoa emanda egotea.
 - Eskubide zibil guztien jabe dela.
 - Espainiarra eta adinduna dela, ez dagoela ezgaituta fisiko edo psikikoki betebeharrak judizialerako eta herri honetan biziko dela, salbu eta Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak baimena ematen badu.
 - d) Botere judizialaren Lege Organikoak 389. artikulutik 397. artikulura bitartean ezarritako ezintasun, ezgaitasun edo debekuren bat ez izatea egiaztatzen duen aitoren bat.
- Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Gaubea, 2022ko azaroaren 15a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO